

28/ «SABINO ARANA» REUNIO A MILES DE PERSONAS EN ZALLA. 29/ LA PRENSA ITALIANA, ESCANDALIZADA CON LA MOSTRA. 29/ EL FESTIVAL DE CINE DE DONOSTIA PONDRÁ A LA VENTA ABONOS PARA EL VICTORIA EUGENIA.

Ba dok hogeitabost!

■ Fadurako Polikiroldegiak jendez gainezka egin zuen Oskorriren urtebetzea ospatzeko. ■ Gonbidatuek berezko xarma eman zieten talde honen kanta ezagunetarikoei. ■ Euskal presoak bertan izan ziren, Senidearen bitartez.

Fadurako Polikiroldegia jendez gainezka zegoen Oskorri taldearen hogeitabosgarren urteurrena ospatzeko larunbatean gau ez zen kontzertuan. Hasiera-hasieratik publiko bero agertu zen —txaloak, oihuak, gozatzeko gogoa holan erakutsi zuten— eta, horri esker, emanaldi guztia ezin hobeto irten zen. Bi orduko kontzertua amaitu zenean, txanpaina edateko une aproposa heldu zen eta, agurrarekin batera, Oskorriren partetik esperantza bat luzatu zen: ea hogeita bost urte barru elkar ikusten dugun berriro!

GETXO
A. OKARIZ

Deabruak aurkeztu eta deabruak egin zuten kontzertuaren agurra. «Mundu osoko deabruak etorriko dira eszenatoki honetara», adierazi zuten gorriz jantzitako pertsonaiek, beraiei tokatu baitzitzaizkien gogoratzea hura guztion gaua zela: Oskorri taldearena baino gehiago beraiekin inoiz dantza eta kanta egin dugun guztiana.

Jendearen txaloak leku guztietatik entzuten zirela, Oskorri taldea igo zen eszenatokira eta berehala gau honen lehendabiziko kantari ekin zion. «Ezpatadantza» du izenburua eta bere lehen notak jo zituztenean talde honen berezko soinua nagusi bihurtu zen Polikiroldegian. «Kontzertu ikaragarri bat egiteko asmoz atera gara», esan zuen Natxo de Felipek; Oskorriren gaua zen, eta bi mila pertsona inguruk konpartitu nahi zuen haiekin.

Bestalde, giroa beretzeko asmoz, hasieran papertxo batzuk banatu ziren jendartean. Zera esaten zuten: «Erraz asmatuko duzuenek, kontzertu hau oso berezia da, Oskorriren 25. urtebetea ospatzeaz aparte, nazio askotako gonbidatuak etorri direlako, zuen harrerarik maitekoarena espero eta merezi dutenak. Bestalde, ETBtik emititzeko eta diskoan argitaratzeko ere grabatu egiten da, beraz, zuen berotasuna oso premiazkoa da ospakizun hau ondo girotzeko». Gomendio batzuk eta azkenik sinadura agertzen zen: «Oskorriren fan kluba».

Ohorezko gonbidatuak

Anton Reixa izan genuen lehen gonbidatua, berari «Bizkaiko aberatsak» kantarekin aritzea tokatu zitzaizlarik. Gogoz ekin zion Galiziakoak euskarari eta ilusioz ere jaso zuen Oskorriren erantzuna: kanta famatu honen estrofa bat galegoz entzun ahal izatea ez zen gauza txikia, gero. Berdin gertatu zitzaizen gainerantzeko beste kantarietara, larunbatean Faduran euskaraz gainera, galegoa, frantsesa, bretoiara, okzitana, ingelesa, irlandesa, katalana eta gaztelania entzun ziren.




Reixa izan zen lehenengoa, beraz, eta ondoren zerrenda luze bat etorri zen: Ruper Ordorika, «Ostatuko neskatxaren koplak» kantarekin; Liam O'Flynn, «Gaztelugatxe»; Jon Sarasua, «Insumisoarena»; Gabriel Ya-coub, «Kalera noa ihesi»; Fermin Muguruza, «Euskaldun berriaren balada»; Pedro Guerra, «Guretzat»; Liam O'Flynn eta Martin Carthy, «Nafarroa»; Patrick Vaillant, «Violetaren martxa»; Juan Carlos Pérez, «Mode»; Mikel Laboa, «Aita-semeak»; Gwendal, «Tirauki»; Niko Exart, «Gora ta gora beti»; Albert Pla, «Euskal Herrian euskaraz», eta Joseba Tapia, «Furra-furra». Kepa Junkera ere bertan izan zen.

Bertsio bitxiak

Kanpoken artean, batzuk apurata, beste batzuk soltura handiago erakutsiz, guztiek euskararekiko mimo handia erakutsi zuten. Etxekoan artean, batzuk euren ahotsa eta presentiaz kategoriaz eman zioten jaialdiari —Ruper Ordorika, Jon Sarasua, Juan Carlos Pérez, Niko Exart edota Joseba Tapia bertan izan ziren eta hori esatearekin nahikoa da—, beste batzuk izugarriko bertsioa osatu zuten tokatutako abestiarekin —Fermin Muguruza-zen bertsioa, «Euskaldun berriaren balada» kantarena, harrigarria izan zen, fresko eta berberria— eta Mikel Laboak, azkenik, «Aita-semeak» abesti ederra eskaini zion publikoari. Bera agertu zenean entzule-ikuleen maitasun osoa jaso zuen bat-batean, jendea zutik jarrita txalorik beroenak eskaini zizkion eta, nahiz eta bere gaua ez izan, argi geratu zen bera dela euskal musikaren izar berezia.

Azkenik, beste gonbidatu batzuk ere izan zirela aipatu behar, Senideak erakundeak kontzertu honen momentu bitan herriko preso politikoan argazkiak ateratu zituen eta.

Iragarrita zegoen bezala, jaialdia hasi eta ordu bi beranduago amaitu zen dena. Azkenean, gonbidatu guztiak elkartu ziren eszenatokian, txanpaina eskuan zutela topa egin zuten eta publikoak «Zorionak» kanta eskaini zien Oskorriko partaideei.



Beste batzuen artean, Muguruza, Tapia, Laboa eta Perez Oskorriekin izan ziren.